

ENPRESA EKIMEN BERRIEN XXVI. SARIKETA

OINARRIAK 2. KATEGORIA

ENPRESAN BURUTURIKO PROIEKTU BERRITZAILEA

Goiekik, Goierriko Garapen Agentziak, ENPRESA EKIMEN BERRIEN XXVI. SARIKETA abian jarri du, horretarako eskualdeko enpresen laguntza duelarik.

Lehiaketa honek bultzatu eta indartu nahi dituen baloreak honako hauek dira: sustatzailearen irudia sustatu, berrikuntza, enpresen garapena eta eskualdean enplegua eta aberastasuna sortu. Azken finean, Goiekik, enpresa mailan Goierri bertan egi bihur daitezkeen asmo guztien alde jarri eta bultzatu nahi ditu. Goierriko ekonomia berpizteko eta eguneratzeko kultura indartzea dakarten proiektu guztien alde egin nahi du.

HELBURUAK

- Berrikuntza prozesuak helburu dituzten inbertsioen gauzatzea ahalbidetzeko laguntzak ematea ETEei.
- Enpresak berrikuntza prozesuak martxan jarri ditzaten eragitea.
- Enpresek berritzeko egindako ahaleginak eta euren aldetik aurrera eramanoiko ekintzak aintzat hartu eta publikoki zabaltzea.
- Goierriko enpresak are eta lehiakorragoak izaten laguntzea.

NORI ZUZENDUA

Goierri eskualdeko ETEetan, 2022-2023 urtean zehar, berrikuntza proiektu bat gauzatu duten enpresei zuzendua dago.

LANAK AURKEZTEKO EPEA

Agiriak aurkezteko epea **2023ko irailaren 22an** amaituko da.

KONTUAN HARTUKO DIREN ERIZPIDEAK

Berrikuntza prozesua enpresaren esparru orotara iristen dira. Horrela, aintzat harturiko gai edo programak honako moduan sailka genitzake:

- Produktu berrikuntza: ondasun edo zerbitzu berria sortu edota hauen hobekuntza nabarmena eragitean datza, ezaugarrien edo eman nahi zaion erabileraren aldetik. Honetan, zehazpen tekniko, osagai eta material, dakarren software, ergonomia edota beste ezaugarri funtzional batzuetan hobekuntza garrantzitsuak sartzean legoke aldaketa.

- Prozesu berrikuntza: ekoizpen edota banaketa metodo berria edo hauen hobekuntza nabarmena eragitean datza. Honetan, teknika, ekipamendu edota softwarean hobekuntza garrantzitsuak sartzen legoke gakoa.
- Marketin berrikuntza: merkaturatze-metodo berria ezartzean datza, produktuaren diseinu edo aurkezpenean, posizionamendu politikan (segmentu edo merkatu jakin batean), promozioan edota prezioan hobekuntza garrantzitsuak eragitean alegia.
- Antolaketa berrikuntza: negozio praktikei, lantokiari edota enpresaren kanpo/barne harremanei ezarritako antolaketa-metodo berrietan datza.

Irizpide orokor hauetatik abiatuta dagokion ebaluazioa Goierriko eskualdearen testuingurua kontuan izanik egingo da.

SARIAK

Enpresan buruturiko proiektu berritzaile onenak ondorengo sariak jasotzeko aukera izango du:

- 2.000€-ko diru-kopurua.
- Enpresa arloak eskainiko dituen zerbitzuei sarbidea.

Laguntzaren ordainketa proiektua martxan jarri eta gauzatzean egingo da.

Epai-mahaiak, aurkeztutako egitasmoaren maila txikiegia dela erabakiz gero, sariak ezerezean geratu daitezke.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Enpresen partehartzea sustatzeko helburuarekin, berrikuntza proiektua garatu duen enpresak epaimahaia osatzen duten kideei proiektuaren deskribapena, berrikuntza maila eta balio erantsia zertan oinarritzen den azalduko du. Horretarako, enpresak Goiekiko eraikinen edo eta bere enpresan bisita eta proiektuaren berri emango du.

Modu berean, ebaluazioan kontuan hartzeko informazio edota proiektuaren edozein balorazio aurkeztu ahalko da.

Informazio gehiago

- Telefonoa: 943 16 18 31/ 943 16 00 40
- <http://www.goierri.eus/lehiaketa>
- Email helbidea: xabier.goieki@goierri.eus

EPAIMAHAIKIDEAK

- Goierri eskualdeko 3 enpresen ordezkari.
- LORTEK Zentro Teknologikoko ordezkari 1.
- Goierri Beheko Industrialdea-ko ordezkari 1.
- Banakako ordezkari 1.
- Goiekiko 2 ordezkari.

KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

- Lehiaketaren epai-mahaiak, hala baderitzo, aurkeztu direnekin elkarrizketak izango ditu.
- Saria jaso ahal izateko, Ogasun Publikoan eta Gizarte Segurantzaren ordainketak eguneratuta dituela egiaztatu behar da.
- Saria jasotzeko, enpresak, proiektu irabazlea izendatzen den momentutik bi urteko epea izango du proiektua martxan jartzeko. Sustatzailearen eskuetatik kanpo gelditzen den arrazoiengatik epe hau baina denbora gehiago beharko balitz proiektua martxan jartzeko (lizentzien tramitazioengatik, etab.), epe hau luzatu ahal izango da, beti ere alde aurretik horrela eskatzen bada eta Goiekiko teknikariek horrela erabakitzen badute.
- Aurkeztutako proiektuak edo asmoak epaimahaikideek isiltasun osoan gordeko dituzte.
- Parte hartzen duena bera da aurkeztutako agiri horietan esan duenaren egiazkotasunaren erantzule bakarra; Saria ematen duten erakundeak inondik inora ere ez daude derrigortuak hor esandakoak egia ala gezur diren aztertzeraz edo egiaztatzeraz, baina hala ere, hala egitea beharrezkotzat edo komenigarritzat joko balute, aukera dute hori egiteko.
- Saria ematen duten erakundeek ez lukete inongo erantzukizunik aurkeztutako asmoak ustiatzeko proposatzen denak edo parte hartzaileak aurkeztutako edozein agirik beste inoren eskubideak modu batean edo bestean urratuko balitu, hau da, jabego intelektualaren, industria-jabegoaren edo beste edozein motatako jabegoren eskubideak urratuz gero.